



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea



BATZAR NAGUSIRAKO
GEHIGARRIA
2021-2022

IKASTURTEA

2023-02-15



www.mondragon.edu/huhezi



LKS AUDITORES, S. L. P.
Polígono Basabe. Pab. E-0 2º Dcha
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
T: 943 03 74 80
F: 943 03 74 81
lksauditores@lksauditores.es
www.lksauditores.es

URTEKO KONTUEN AUDITORETZA-TXOSTENA, AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINA

HUHEZI Sociedad Cooperativa sozietateko bazkideei

Iritzia

HUHEZI Sociedad Cooperativaren (Sozietatearen) urteko kontuak ikuskatu ditugu. Honako hauek hartzen dituzte barne: 2022ko abuztuaren 31ko balantzea eta egun horretan amaitutako ekitaldiaren galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, eskudiru-fluxuen egoera-orria eta memoria.

Gure ustez, honekin batera doazen urteko kontuek honako hauek islatzen dituzte, zorrotasunez, alderdi nabarmen guztietan: Sozietateak 2022ko abuztuaren 31n dituen ondarea eta egoera finantzarioa, eta egun horretan bukatutako ekitaldiko emaitzak eta eskudiru-fluxuak. Horiek guztiek bete egiten dituzte aplikatzekoak diren finantza-informaziorako arauak (txostenaren 2.a oharrean zehaztutakoak) eta, bereziki, horietan jasotako kontabilitate-printzipio eta -jarraibideak.

Iritziaren oinarria

Auditoretza egiteko, Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzei buruzko araudian oinarritu gara. Arau horien arabera dagozkigun erantzukizunak geroago deskribatuko ditugu, gure txostenaren atal honetan: *Auditorearen erantzukizunak urteko kontuen auditoretzan.*

Sozietatetik independenteak gara, eta, beraz, bete egiten ditugu Espainian urteko kontuen gure auditoretzari aplikatzekoak diren etika-eskakizunak, independentziarenak barne, kontu-auditoretzako jarduera erregulatzen duen araudiak eskatutakoaren arabera. Zentzu horretan, ez dugu kontu-auditoretzaz bestelako zerbitzurik eman, eta ez da sortu aipatutako araudiaren arabera beharrezko independentzia zalantzan jarri duenik.

Gure ustez, auditoretzarekin lortu dugun ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia bermatzen du iritzia emateko.

HUHEZI S. COOP.

Urteko kontuen auditoretza-txostena, auditore independente batek egina,
2022ko abuztuaren 31koa

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Hauek dira auditoretzako alderdirik garrantzitsuenak: gure iritzi profesionalaren arabera uneko epealdiko urteko kontuen auditoretzan akats materiala eragiteko arrisku nagusitzat jotakoak. Arrisku horiek osotasunean aztertu ditugu gure urteko kontuen auditoretzan, eta osotasunean eman dugu, halaber, horiei buruzko iritzia; hau da, ez dugu arrisku bakoitzari buruzko iritzi bereizirik adierazi.

Dirulaguntza bidezko diru-sarrerak kontabilizatzea*Azalpena*

Sozietatea irakaskuntza-kooperatiba integrala da, izaera pribatukoa, baina hein batean herri-administrazioek diruz lagundua.

2019ko martxoan, Euskal Unibertsitate Sistemarentzako 2019-2022 aldirako Unibertsitate Plana onartu zen. 3/2001 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, 89. artikuluan jasotzen duenez, unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailak, Jaurlearitzaren ordezkari gisa, dagokion unibertsitatearekin programa-kontratuak hitzartu ahal izango ditu, lankidetzak-formulatza; programa-kontratu horiek administrazio-izaera izango dute, eta dirulaguntzak izango dira. Mondragon Unibertsitatea S. Coop. kooperatibaren barruan dago Sozietatea. Hori dela eta, kooperatiba horrek sinatuta ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin 2019-2022 aldirako Unibertsitate Planari dagozkion programa-kontratuak. Mondragon Unibertsitateak urtero banatzen ditu dirulaguntza horiek bere ikastetxe elkartuen artean.

Beraz, Sozietateak zuzenean eta Mondragon Unibertsitatearen bidez jasotzen ditu urtero herri-administrazioen eta beste erakunde batzuen dirulaguntzak, hala inbertsio-jarduerak nola ustiapenekoak finantzatzeko. Dirulaguntzak kobratzeko eskubidearen bidez kotasuna egiaztatzea eta sortzapen-irizpideen arabera emaitzetara egotea alderdi garrantzitsuak dira gure auditoretzan, dirulaguntza horiek emaitza-kontuan duten bolumena eta ekitaldiko diru-sarrerak zehaztean akats materiala egiteko arriskua aintzat hartuta.

Gure erantzuna

Honako hauek egin ditugu, besteak beste: gure auditoretza-prozeduretan: dirulaguntzak emateko ebazpenen zuzentasuna aztertu (ez itzultzekoak direla ikusirik) eta kontabilitatean helburuaren arabera egoki jaso diren egiaztatu.

Ikusi dugunez, bete egin dira dirulaguntzak emateko ezarritako baldintzak eta ez dago jasotzearen inguruko arrazoizko zalantzarik.

Orobat, lagin adierazgarri batean kanpoko berrespenen bidez egiaztatu ahal izan dugunez, zenbateko horiek geroago kobratu dira, edo, bestela, kobratzeko dagoen saldoa arrazoizkoa izan da.

HUHEZI S. COOP.

Urteko kontuen auditoretza-txostena, auditore independente batek egina,
2022ko abuztuaren 31koa

Bestalde, honekin batera doan memoriaren 10, 14, 21 eta 22.a oharretan azaldutako edukiei buruz Sozietateak emandako informazioaren egokitasuna ere aztertu dugu.

Egindako prozeduretan oinarrituta, gure iritziz ikuspegia eta urteko kontuetan xehakaturako informazioa arazoizkoak dira eta bat datoz lortutako ebidentziarekin.

Bestelako informazioa: Kudeaketa-txostena

Bestelako informazioari buruzko atalean, 2022ko abuztuaren 31n amaitutako ekitaldiko kudeaketa-txostena jaso da soilik. Sozietatearen administratzaileen erantzukizuna da hori formulatzea, eta ez da urteko kontuetan sartzen.

Urteko kontuei buruzko gure auditoretza-iritziak ez du kudeaketa-txostena kontuan hartzen. Kontu-auditoretzen jardueraren inguruko araudiak xedatutakoari jarraikiz, kudeaketa-txostena urteko kontuekin bat ote datorren ebaluatzea eta jakinaraztea da kudeaketa-txostenaren gainean dagokigun erantzukizuna. Horretarako, kontuon auditoretza egitean entitateari buruz lortutako ezagutzan oinarritzen gara. Gainera, kudeaketa-txostenaren edukiak eta aurkezpenak aplikagarria den araudia betetzen duten ebaluatu eta jakinarazi behar dugu. Egin dugun lanean oinarrituta akats materialen bat dagoela ondorioztatzen badugu, behartuta gaude horren berri ematera.

Aurreko paragrafoan azaldutakoaren arabera egindako lanean oinarrituta, kudeaketa-txosteneko informazioa bat dator 2022ko abuztuaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuekin. Orobat, urteko kontuen edukia eta aurkezpena bat datoz araudi aplikagarriarekin.

Administratzaileen erantzukizuna urteko kontuen inguruan

Honekin batera doazen urteko kontuak formulatzea administratzaileen ardura da, eta Sozietatearen ondarea, finantza-egoera eta emaitzak islatu behar dituzte, zorrotasunez, Espainian Sozietateari aplikatu behar zaizkion finantza-informaziorako arauak betez eta urteko kontuak iruzur edo hutsegiteen ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko nahitaezkoztat jotzen duten barne-kontrolari jarraikiz.

Urteko kontuak prestatzean, administratzaileen ardura da Sozietateak jarduneko enpresa izaten jarraitzeko gaitasuna ote duen balioztatzea. Dagokionean, jarduneko enpresari lotutako gaiak azaldu eta jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabili behar dute, salbu eta administratzaileek Sozietatea likidatzeko eta eragiketak amaitzeko asmoa badute, edota beste aukera errealistik ez badago.

HUHEZI S. COOP.

Urteko kontuen auditoretza-txostena, auditore independente batek egina,
2022ko abuztuaren 31koa

Auditorearen erantzukizunak urteko kontuen auditoretzaren inguruan

Gure helburuak dira, batetik, arrazoizko segurtasuna lortzea urteko kontuek osotasunean iruzur edo hutsegiteen ondoriozko akats materialik ez dutela bermatzeko eta, bestetik, gure iritzia jasotzen duen auditoretza-txostena egitea.

Arrazoizko segurtasuna segurtasun-maila handia da, baina ez du bermatzen Espainian auditoretzaren jarduna erregulatzen duen araudiaren arabera egindako auditoretzek akats materialak beti antzemango dituztenik, baldin badaude. Akatsak iruzur edo hutsegiteen ondoriozkoak izan daitezke, eta materialtzat jotzen dira, baldin eta arrazoizkoa bada aurreikustea urteko kontuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragina izango dutela.

Espainiako kontu-auditoretzei buruzko araudiarekin bat, gure iritzi profesionala ematen dugu eta eszeptizismo profesionalean oinarritutako jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Eta, gainera:

- Urteko kontuetan iruzur edo hutsegiteen ondoriozko akats materialak egoteko arriskuak identifikatzen eta balioztatzen ditugu, arrisku horiei erantzuteko auditoretzako prozedurak ezartzen ditugu eta gure iritzia oinarritzeko auditoretza-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu. Iruzurraren ondoriozko akats materiala ez antzemateko arriskua handiagoa da hutsegitearen ondoriozko akats materiala ez aurkitzeko arriskua baino; izan ere, iruzurrak berekin ekar ditzake kolusioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea.
- Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren berri jasotzen dugu, zirkunstantzien arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko, ez Sozietatearen barne-kontrolaren eraginkortasunaren gaineko iritzia emateko.
- Erabilitako kontabilitate-politikak egokiak diren eta kontabilitate-estimazioak eta administratzaileek emandako informazioa arrazoizkoak diren balioztatzen dugu.
- Erabakitzen dugu ea administratzaileek jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten, eta, lortutako auditoretza-ebidentzian oinarrituta, ondorioztatzen dugu ea gertaeretan edo baldintzetan ba ote dagoen ziurgabetasun materialik, Sozietateak jarduneko enpresa izaten jarraitzeko gaitasunaren inguruan zalantza nabarmenak sortzeko modukorik. Zalantza materiala dagoela ondorioztatuz gero, urteko kontuetan horren inguruan emandako informazioari buruz ohartarazi behar dugu gure auditoretza-txostenean. Eta, informazio hori okerrekoa bada, iritzi aldatua eman behar dugu. Auditoretza-txostenaren egunera arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira gure ondorioak. Dena dela, litekeena da etorkizuneko egitateen edo baldintzen ondorioz Sozietateak jarduneko enpresa izateari utzi behar izatea.
- Urteko kontuen (eta informazioaren) aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, bai eta urteko kontuek transakzio eta azpiko gertaera guztiak egoki jasotzen dituzten, Sozietatearen benetako egoera adierazteko moduan.

HUHEZI S. COOP.

Urteko kontuen auditoretza-txostena, auditore independente batek egina,
2022ko abuztuaren 31koa


Sozietatearen administratzaileekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako auditoretza noiz egingo den eta zer irismen izango duen jakiteko, auditoretzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeke eta auditoretzan aurkitutako barne-kontrolleko edozein urritasun nabarmenen berri emateko.

Sozietateko administratzaileei jakinarazi dizkiegun arriskuen artean, 2022ko abuztuaren 31ko urteko kontuen auditoretzako nabarmenenak zehazten ditugu, horiexek baitira arriskurik garrantzitsuenen gakoak.

Arriskuok gure auditoretza-txostenean deskribatzen ditugu, betiere legezko edo arauzko xedapenek kasuan kasuko gaia plazaratzea debekatzen ez badute.

LKS AUDITORES, S.L.P.

ROAC zenbakia: S1054



Ana Isabel Vicente Lázcano

ROAC zenbakia: 19.027

2023ko urtarrilaren 16a



Auditoretza-txosten hau gaztelaniaz 2023ko urtarrilaren 16an igorritako jatorrizko auditoretza-txostenaren kopia bat da, euskara itzulitakoa; hortaz, itzulpenak bestelako interpretaziorik eragiten badu, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

EGOERA-BALANTZEA

2022ko eta 2021eko abuztuaren 31n (Eurotan adierazia)

| AKTIBOA | 2022-08-31 | 2021-08-31 |
|---|-------------------|-------------------|
| AKTIBO EZ-KORRONTEA | 8.926.527 | 9.188.834 |
| I. Ibilgetu ukiezina | 186 | 2.443 |
| 1. Informatika-aplikazioak | 186 | 2.443 |
| II. Ibilgetu materiala | 8.336.824 | 8.627.648 |
| 1. Lursailak eta eraikuntzak | 137.580 | 137.580 |
| 2. Instalazio teknikoak, makinak, tresnak, altzariak eta abar | 8.186.128 | 8.476.952 |
| 3. Uneko ibilgetua eta aurrerakinak | 13.116 | 13.116 |
| III. Epe luzerako finantza-inbertsioak | 589.517 | 558.743 |
| 1. Ondare-tresnak | 589.517 | 558.743 |
| AKTIBO KORRONTEA | 5.419.369 | 3.976.079 |
| I. Zordun komertzialak eta kobratu beharreko bestelako kontuak | 2.038.407 | 1.357.607 |
| 1. Bezeroak salmentengatik eta emandako zerbitzuengatik | 221.311 | 134.782 |
| 2. Hainbat zordun | 1.458.094 | 975.526 |
| 3. Administrazio publikoekiko bestelako maileguak | 356.510 | 242.734 |
| 4. Bazkideak, eskatutako ordainketengatik | 2.492 | 4.565 |
| II. Epe laburreko finantza-inbertsioak | 615 | 3.940 |
| 1. Beste finantza-aktibo batzuk | 615 | 3.940 |
| III. Epe laburreko periodifikatzeak | 52.679 | 31.125 |
| IV. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak | 3.327.668 | 2.583.407 |
| 1. Altxortegia | 3.327.668 | 2.583.407 |
| AKTIBOA GUZTIRA | 14.345.896 | 13.164.913 |

EGOERA-BALANTZEA

2022ko eta 2021eko abuztuaren 31n (Eurotan adierazia)

| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA | 2022-08-31 | 2021-08-31 |
|--|-------------------|-------------------|
| ONDARE GARBIA | 10.107.865 | 9.477.941 |
| 1. Funts propioak | 5.883.118 | 5.509.048 |
| I. Kapitala | 2.396.881 | 2.222.365 |
| 1. Kapital kooperatibo harpidetua | 2.396.881 | 2.222.365 |
| II. Erreserbak | 3.378.221 | 2.987.609 |
| 1. Nahitaezko Erreserba Funtsa | 1.021.655 | 956.933 |
| 2. Bestelako erreserbak | 2.356.566 | 2.030.676 |
| III. Kooperatibaren soberakina | 108.016 | 299.074 |
| 2. Balio-aldaketaren ondoriozko doikuntzak | 429.033 | 398.319 |
| 1. Ondare garbian aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | 429.033 | 398.319 |
| 3. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak | 3.795.714 | 3.570.574 |
| PASIBO EZ-KORRONTEA | 50.918 | 112.944 |
| I. Epe luzeko hornidurak | 21.336 | 33.265 |
| 1. Pertsonalarentzako epe luzeko prestazioengatiko obligazioak | 21.336 | 33.265 |
| II. Epe luzeko zorrak bazkideekin | 29.582 | 79.679 |
| PASIBO KORRONTEA | 4.187.113 | 3.574.028 |
| I. Epe laburreko COFIPa | 4.128 | 25.785 |
| II. Ezaugarri berezidun epe laburrerako zorrak | 4.135 | 2.546 |
| 1. Aldi baterako kapitalaren epe laburreko hartzekodunak | 4.135 | 2.546 |
| III. Epe laburreko hornidurak | 11.929 | 11.929 |
| IV. Epe laburreko zorrak | (1.514) | 3.166 |
| 1. Beste finantza-pasibo batzuk | (1.514) | 3.166 |
| V. Epe laburreko zorrak bazkideekin | 49.587 | 58.546 |
| VI. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako kontuak | 1.439.951 | 1.257.128 |
| 1. Hornitzaileak | (304) | (444) |
| 2. Hainbat hartzekodun | 950.420 | 810.196 |
| 3. Ordaintzeko dauden ordainsariak | 190.971 | 170.004 |
| 4. Administrazio publikoekiko bestelako zorrak | 298.864 | 277.372 |
| VII. Epe laburreko periodifikatzeak | 2.678.897 | 2.214.928 |
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA | 14.345.896 | 13.164.913 |

GALDU-IRABAZIEN KONTUA

2022ko eta 2021eko abuztuaren 31n amaitutako ekitaldietakoa (Eurotan adierazia)

| KONTUAK / (ZORRA) HARTZEKOA | 2022-08-31 | 2021-08-31 |
|---|--------------------|--------------------|
| ERAGIKETA JARRAITUAK | | |
| 1. Negozio-zifraren zenbateko garbia | 9.501.284 | 8.514.416 |
| a) Salmentak | 907 | 2.660 |
| b) Zerbzituak ematea | 9.500.377 | 8.511.756 |
| 2. Hornikuntzak | (1.709.418) | (1.455.563) |
| a) Salgaien kontsumoa | (1.594) | (2.200) |
| b) Lehengaien eta bestelako gai kontsumigarrien kontsumoa | (138.891) | (90.242) |
| c) Beste enpresa batzuek egindako lanak | (1.568.933) | (1.363.121) |
| 3. Beste ustiapen-sarrerak batzuk | 2.244.301 | 2.005.930 |
| a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk | 31.522 | 32.021 |
| b) Ekitaldiko emaitzan sartutako ustiapeneko dirulaguntzak | 2.212.779 | 1.973.909 |
| 4. Langileen gastuak | (7.469.905) | (6.394.194) |
| a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak | (2.024.160) | (1.552.391) |
| b) Bazkideen lana | (4.540.245) | (4.197.968) |
| c) Zama sozialak | (905.500) | (643.835) |
| 5. Beste ustiapen-gastu batzuk | (2.173.688) | (2.052.682) |
| a) Kanpoko zerbitzuak | (2.133.504) | (1.953.798) |
| b) Zergak | (14.234) | (8.724) |
| c) Merkataritza-eragiketen galerak, narriadura eta aldaketak | (7.555) | (9.393) |
| d) Kudeaketa korronteko beste gastu batzuk | (18.395) | (80.767) |
| 6. Ibilgetuaren amortizazioa | (444.291) | (427.824) |
| 7. Ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzen eta bestelakoen egozpena | 143.524 | 130.794 |
| 8. Heziketarako eta kooperatiba-sustapenerako eta interes publikoa duten beste helburu batzuetarako kontribuzioa (COFIP) | (4.128) | (25.785) |
| a) Zuzkidura | (4.128) | (25.785) |
| USTIAPEN EMAITZA | 87.679 | 295.092 |
| 9. Finantza-sarrerak | 20.350 | 5.982 |
| a) Hirugarrenen ondare-tresnetako partaidetzen ondoriozkoak | 20.350 | 5.982 |
| 10. Kanbio-aldeak | (13) | - |
| 11. Finantza-tresnak besterentzeagatiko narriadura eta emaitza | - | (2.000) |
| a) Besterentzeagatiko emaitzak eta beste batzuk | - | (2.000) |
| EMAITZA FINANTZARIOA | 20.337 | 3.982 |
| ZERGA AURREKO EMAITZA | 108.016 | 299.074 |
| 12. Mozkinen gaineko zerga | - | - |
| ERAGIKETA JARRAITUEN ONDORIOZKO EKITALDIKO EMAITZA | 108.016 | 299.074 |
| KOOPERATIBAREN SOBERAKINA | 108.016 | 299.074 |

ITXIERA EKONOMIKOA: OHIKO INBERTSIOAK

2021/2022 ikasturtea

| KONTZEPTUA | ZENBATEKOA |
|--|----------------|
| I. Ohiko inbertsioak | |
| Ekipamendu teknologikoa | 62.078 |
| Instalazioak | 78.282 |
| Informazio Sistemak, Ekipamendu Didaktikoak, Altzariak | 10.850 |
| GUZTIRA INBERTSIOAK | 151.210 |
| II. Finantzaketa | |
| FEPI funtsak | 90.726 |
| Berezko barne funtsak | 60.484 |
| GUZTIRA FINANTZAKETA | 151.210 |

PERTSONALAREN DATUAK

| KONTZEPTUA | ZENBATEKOA |
|---|------------|
| Bazkideak | 80 |
| Inoren konturako kontratatuak | 57 |
| Bazkide birkokatuak | 0 |
| Prestakuntzan dauden Ikertzaileak (PIF) | 8 |
| Bekadunak | 14 |
| Guztira | 159 |



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**

Dorleta,z/g
20540 ESKORIATZA
Gipuzkoa
Tel. 943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu

Otalora 31
20550 ARETXABALETA
Gipuzkoa
Tel. 943 71 31 40
harrera.huhezi@mondragon.edu

Olagorta kalea 26 (Zorrotzaurre)
48014 BILBO
Bizkaia
Tel. 943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu



www.mondragon.edu/huhezi



ENTITATE LAGUNTZAILEA



LABORAL
kutxa